



TOKIKOM



“Horrelako erronka bati ezin nion ezetzik eman”


**Jon Peli Uriguen, Gipuzkoako Berrikuntzako,
Landa Garapeneko eta Turismoko diputatua**

ELKOBI

Etxebizitzen Kooperativa



25
ETXEBIZITZA



**PISUAK ETA DUPLEXAK 2 ETA 3 LOGELEKIN
GARAJEA ETA GANBARA BARNE**


145.000 € TIK AURRERA

**ETXEBIZITZA ZOZKETARAKO KOOPERATIBISTEN
KOPURUA BETE ARTE IZENEMATEA ZABALIK**



EVOLVIS GESTION S.L.
Gestión de Cooperativas

San Bartolomé, 3 . 20870 . Elgoibar . Tel.: 943-031168
elgolbar@evolvisgestion.com
Ordutegia: Ast-Ost 10:00 - 12:30 / 17:00 - 21:00
Lar 10:00 - 14:30



25. Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdia

Aldapeko sagarraren adarraren puntan doinuarekin hasi nuen Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdiko ibilbidea. Dantza eskolako 10 urteko mukitsu batzuk, Lurdes irakaslearen koreografia egin genuen. Orduan ez ginen jabetu berezia izan zela, jaialdiaren 25 urteko ibilbidean, dantza eskolako bakarrak izan baikara Haritz Euskal Dantzari Taldearekin batera dantzatu dugunak.

Urte guztiko lana herritarrei aurkezteko ordubete dugu. Jaialdi ostean, dantzariok komentatzen dugu azkarregi pasatzen dela. Hainbeste aldiz ensaiatutakoa behin bakarrik dantzaten da, eta urduritasunak ez dizu ehuneko ehunean disfrutatzen uzten. Gaizki egindako pausoa ondo egiten, abarkak ondo lotzen eta buruko zapia jartzen dakigula demostratu nahi duzu. Baina kitto, ez dago beste aukerarik.

Behobiako lasterketako lemak dio: *Noiz sufritzen duzu gehiago korrika egiten ala korrika egitera joan gabe?*. Nik argi daukat, nahiago kirioak dantzan ibiltzea dantzatu gabe geratzea baino. Kolonbian pasatako udan jaialdiko kartela nire gelan izan nuen. MIR azterketa prestatzen lruñan nintzela, ez nuen jaialdia ikustera etortzeko aukerarik izan. Nire bikote Mikeli prakak apurto zitzaizkionean tela beltzaren atzetik ikusi nuen saioa. Azken bi urteotan harmailetan egotea tokatu zait: lesionatu eta hankan eskaioarekin behin, eta iaz trentza

postizoak jartzeko ile motzegia nuelako. Hori da nahi eta ezina.

Honela ba, BARRENEKO irakurle fin horri, Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdiaren 25. urteurrenaz gozatu eta gaur irekiko den erakusketa bisitatzeko gonbitea luzatzen dizut. Urtero etortzen zareten ikusle finentzat aurreko urteetakoa hobetzea espero dut, eta aurten lehen aldiz etorriko zaretenoi, berriz, hurrengo urteetan esperientzia errepikatzeko gogoia piztea nahiko nuke.




Larraitz Zialtzeta

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Folklore Jaialdiaren 25. urteurrenaz gozatu, eta gaur irekiko den erakusketa bisitatzeko gonbitea luzatzen dizut”

Lanbroa



Gosariak
 Pintxoak
 Bokatak
 Plater konbinatuak

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ileapaindegia · Estetika · Solarium-a

Idama



Ekaineko irabazlea:

IRATXE ALONSO

Uztaileko saria:

GORPUTZ MASAJEA HARRIBITXIEKIN

Antonio Arrillaga, 6-8 behe (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu
Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




EL GOBIERNO UENLA



MENDAKO UDALA



ARE ARE ET



DANOBATTALDEA



kutxa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Ezin sinetsi

Pasa den uztailaren 1ean, ostirala, 12:00ak aldera autoa Aita Agirre plazako aparkalekuan utzi nuen, ondo utzita gainera, zuzen eta OTA-TAO txartel eta guzti.

Hogei minutu inguru eman nituen erosketak egiten, eta autora bueltatzerakoan, norbaiten giltzaren markak ikusi nituen autoan, atzetik aurrera bi alboetan, nahita eta haserre biziz egindakoak.

Ezin nuen sinetsi gertatutakoa. Eguerdiko 12:00ak, ostirala, eta norbaitek lasaitasun osoz bere amorrua nire autoarekin ordaindu zuen. Zer dela eta? Batek daki. Benetan koldarra izan behar da halakoak egiteko, koldarra eta zitala.

Norbaitek edozer ikusi izan balu, eskertuko nuke BARREN astekariko arduradunei daturen bat ematea, beraiek nirekin harremanetan jartzeko.

Eskerrik asko,

A.L. ©

San Pedroko jaiak

Joan zen larunbatean, San Pedro bailarako jaiak zirela-eta, arratsaldeko quad krosa ikustera joan ginen, 9 urteko nire bi semeak eta ni. Bertara iritsi ginenean, konturatu nintzen bi barandila zeudela bide alboetan, baina dena irekita zegoen. Gazte batzuk zeuden sarrera ondoan, baina ez zidaten kasurik egin, eta barrura sartu nintzen. Beraiengandik 50 metrora aparkatu nuen autoa, eta, ez zidaten ezer ezan. Inork ez zidan ezer esan. Handik ordu erdira Santi Arriola etorri zitzaidan, builaka eta irainka, ni zein nintzen ordaindu gabe han sartzeko galdetuz. Nik esan nion ordainduko nuela, ez neukala arazorik, baina bailara hartatik alde egiteko esan zidan; egun horretarako berak erosita zeukala San Pedro bailara, eta berak nahi zuena sartuko zela han. Bailara oso bat berak erosi?

Kanpora irtenarazi gintuen eta alde egitera nindoan, baina nire semeak krosa ikusteko ilusioarekin zeuden.

Lagun batekin egin nuen topo, eta gertatutakoa kontatu nion. Bere sarrerak eman zizkigun, berak joan egin behar zuelako.

Besterik gabe, agur bat San Pedro baila-

rako jendeari. Urtero joaten gara zuen festetara, baina ez saldu zuen auzoa edozeini.

Koldo Aierdi ©

OHARRA

Datorren barixakuan, uztailak 15, kaleratuko dugu **BARREN**en azken alea. Beraz, zerbait argitaratu nahi izanez gero, uztailaren 13a izango da informazioa emateko azken eguna. Era berean, eguerdiko 12:00ak arte jasoko ditugu zorian-agurrak eta merkatu txikirako iragarkiak.



**Joanes
Rodriguez**

Batzuetan espero gabe jasotzen dira notiziak, merezi ez duzun sentipenekin, gazi-gozo. Horrela jasodut nik ere *zozoak beleari* idazteko deia; lanez lepo eta “inspirazio” gabeko une ilun batean, baina ez naiz isilik geldituko, ez horixe.

Iluntasuna eta galduta egotea, zuzenean loturik dauden terminoak dira niretzat, baita ezkutatzea ere. Gaur egun ez daukat ezkutatzeko gogorik, ezta beharrik ere, baina batzuetan, egunerokotasunak jaten gaituen horietan, zerbait behar izaten da argia erakuts diezagun. Nik fenomeno honi linterna edo itsasargia deitzen diot.

Pertsonak, lekuak, gauzak, abestiak... Izan daitezke berriro ere mundura bueltan ekarriko zaituena, egia erakutsiko dizutena eta sentipen epel batez beteko zaituena. Nire kasuan badira batzuk, baina bat bereziki udari lotua: Zumaiako Itzurun hondartzako amildegiak. Barne zirrara, aipatze soilarekin.

**“Zein da zure itsasargia,
Maialen?”**

Baina ez daukanak ongi ohi daki zein den ona, edukitzea, eta batzuetan, joan egin behar izaten gara, indarberiturik itzultzeko. Nire kasuan, Hendaian hasiko dut bidaia nire 13 taldekideekin, abendura arte; urtarrian Brasileko Senac Unibertsitatean, otsaila eta martxoan Txinan, eta apirila eta maiatza Indian. Aurten gainera jaietan ere ez naiz izango, sukaldari noa eta bi erroberatan.

Ikusten duzun bezala, ikasturte berrian, bizitza berria, asko hausnartzeko, asko egiteko eta asko ikasteko. Beti ere, prisarik gabe pentsatzen, baina gelditu gabe ekiten. Zein da zure itsasargia Maialen?



**Maialen
Arnedo**

Galdera sakona bota didazuna, Joanes. Dena dela, momentu ezin aproposago batean galdetu didazula esan beharra daukat. Izan ere, Izaban nago aspaldiko partez, zuk aipaturiko egunerokotasunetik ihesi.

Txikitatik etortzen naiz hona, lagun handiak egin ditut hemen, eta adiskide hauekin bizitako abentura guztiei esker, zirikitu ia guztiak ezagutzen ditut. Etortzen naizen bakoitzean, zuk aipaturiko barne zirrara hori sentitzen dut eta jada ezagunak zaizkidan inguruak berriz bisitatzeko nahia pizten zait. Beraz, dudarik gabe esan dezaket, Nafarroako leku paregabe hau dela nire itsasargia.

**“Dudarik gabe esan dezaket Nafarroako leku
paregabe hau dela nire itsasargia”**

Jakin badakigu, Euskal Herria txoko zoragarrien gordeleku dela eta Izaba dugu horren erakusle. Harrizko kale estuek, eliza eta plaza zaharrek, Idoiako ermita txikiak, Belabarzeko ur-jauziak eta nola ez, inguruko mendiek xarma berezia eskaintzen diote Pirinioen bihotzean aurkitzen den herrixka honi.

Zu ordea, Txina, India eta Brasil inguruan ibiliko zara datozen hilabeteetan. Leku, kultura, hizkuntza eta jende berria ezagutzeko aukera ezin hobea, zalantza barik! Gozatu eta asko ikasi, Joanes!

Eta zozoa kontinente ezberdinetatik bidaiatzen dagoen bitartean, belea hementxe geratuko da uda partean, Nafarroa eta Zuberoako inguruak arakatuz, gure mundua, Euskal Herria, apur bat gehiago ezagutzeko esperantzan.



PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilon, 2 - 3.sotua 943 74 35 52 - 74 27 88
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Korpo eta barneko estaldura
Zolak erortzen
Lantekua: egut, aluminio, PVC
Pisua orokorra
San Roke, 7 behea
Pel. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 570

ARGENTINAKO ELGOIBAR



Gipuzkoako eta Euskal Herriko mugak gainditu ditu Elgoibarrek, eta Atlantikoa ere zeharkatu du, Argentinara iritsi arte. Hemendik milaka kilometrora, astero-astero Elgoibarko koloreak defendatzen ditu mutil talde batek Argentinako zaletuen futbol ligan.

Ainhoa Andonegi

Argentinako Euskal-Germaniar Futbol Ligan jokatzen du Elgoibar taldeak. Buenos Aires hiriburuko amateur liga garrantzitsuena da, eta futbol talde guztiak izen eskaldunak edo alemaniarak dituzte. 364 taldek jokatzen dute ligan horretan, lau kategoriatan banatuta, eta talde horien artean, Elgoibar izena dauka batek 2001. urtetik. Mariano Andrade *bichi* Elgoibar taldeko jokalariek esandakoaren arabera, kasualitatez aukeratu zuten izen hori, eta gerora hasi ziren Elgoibar herriari buruzko informazioa batzen: “Taldea batzuei antolakuntzako kideek ematen diete izena, eta beste batzuk aukeratu egiten dute. Guk Elgoibar aukeratu genuen. Kasualitate hutsa izan zen, baina egun lotura handia sentitzen dugu herriarekiko. Ez dakit nola azaldu sentimendu hori”. Gaur egun,

Elgoibar taldeko hainbat jokalarik Elgoibarko armarriaren tatuajea egin dute gorputzean

“harrotasunez” defendatzen dituzte astero-astero Elgoibarko koloreak. Eta ez edonola, gainera! Hamar urteko ibilbide honetan lau aldiz irabazi dute txapelketa. Horrez gain, Elgoibar taldea izan zen txapelketa hiru aldiz jarraian irabazi zuen estreinako taldea. 2007an irabazi zituen lehengo bi txapelketak, eta hirugarrena 2008an. Azken txapelketa

2010ean irabazi zuten. Aurtengo denboraldirako helburua liga irabaztea da, eta lortzeko gaitasuna dutela uste dute. Bichiren ustez, adiskidetasuna da kirol emaitza onen sekretua: “Lagun talde bat gara, lagunak baino gehiago, anaiak garela dirudi, eta dena ematen dugu taldekideengatik. Horixe da gure sekretua”.

Armarria gorputzean

Hain da handia Elgoibarrekiko sentimendua, taldekide batzuk Elgoibarko taldearen armarrria tatuatu dutela gorputzean. “Betirako daramagu Elgoibar soinean”, esan du Bichik. Egia esanda, promesa bat egin zuten: 2010eko liga irabaziz gero, armarrria tatuatu egingo zutela zin egin zuten jokalariek, eta promesa bete egin dute. Argentinako talde honen armarrria CD Elgoibarrek daukan



Argentinako Elgoibar taldeko futbolarien ametsa Euskal Herria eta Elgoibar ezagutzea da

berbera da, baina ikurriñaren koloreak jarri dizkiote. Hortaz, fondoa beltza izan beharrean, argentinaren armariak fondo berdea dauka. Jantziak ere ez dira CD Elgoibarren berdinak. Elgoibarko taldearen kamisetak marra zuri-gorriak dauzka, eta argentinarren elastikoak marra gorri-berdeak ditu. Hala ere, “desberdintasuna baino handiagoa da batzen gaituen sentimendua”, esan du Bichik. Horrekin batera, euskaldunak eta argentinarrak pasioz beteriko pertsonak direla uste du: “Euskaldunak zuen ideiak defendatzerakoan pasioz egiten duzue, eta geu ere pasioz beterikoak gara, bereziki, futbolaz hitz egiten dugunean”.

Ametsa, Elgoibar ezagutzea

22 lagunek osatzen dute Argentinako Elgoibar taldea, eta guztien ametsa Elgoibar ezagutzea da. Euskal Herria, oro har, ezagutu nahiko luketela azaldu du Bichik, baina bidaia horretan, bereziki, Elgoibar bisitatzeko gustatuko litzaieke. Bidaia garestia da, kilometro asko dira eta esan dutenez, ez da erraza izango hona etortzea. Hala ere,



Euskal Herrira bidaia egiten duten ezagunei hemengo oroigarriak eskatzen dizkiote: “nire gurasoek egin zuten Euskal Herrira bidaia, eta Elgoibarko oroigarriak ekartzeko eskatu nien, baina ez zen posible izan”, esan du Bichik malenkoniaz. Euskal Herriari buruz ez dakitela gehiegi gaineratu du, baina Interneten sarri ibiltzen omen dira euskaldunei eta Euskal Herriari buruzkoak irakurtzen. Euskara ikastea “polita” izango litzatekeela gaineratu du, eta ahal duten moduan euskal hitzak itzultzen ibiltzen direla azaldu du. Hortik dator beraien lema, “Elgoibar, el mas grande lejos”. Badakite CD Elgoibarko talde nagusiak Haundi duela izena, eta Argentinan ere Elgoibar handia dela erakutsi nahi dute.

Gabi Jatetxea nagusitu da Pintxo Lehiaketan

Epaileen eta herritarren saria, biak, Gabi Jatetxeak irabazi ditu

Asteazkenean eman zuen Udalak Hirugarren Pintxo Lehiaketaren irabazlearen berri eta bi irabazle espero ziren arren, izen bakarrak bete ditu bi postuak. Gabi jatetxeko Eneritz Burunza eta Veronica Rodriguezen *Mozzarella Meteoritoak* jaso baititu bi sariak: epaimahaiak ematen duena batetik, eta herritarrek emandako puntuen bitartez egokitzen dena bestetik. Ez da gainera lehenengo aldia Gabiko pintxoak saria jasotzen duena. Lehiaketaren lehenengo edizioan ere jaso baitzuen herritarren saria. Asteazkenean saria jaso ondoren, berriz ere merituaren merezimendua erakutsi ahal izan zuten bi

sukaldariek herritarren aurrean; Gabi Jatetxearen atarian beste 300 pintxo irabazle banatu baitzituzten gerturatutako herritarren artean.

Partehartze handia

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, aurten 8.100 boto txartel jaso dira, iaz baino 2.700 boto gehiago. Horretaz gain, azpimarratzekoa da taberna parte hartzailetako batzuek mila pintxotik gora saldu izana. Horren aurrean, antolatzaileek parte hartzaile guztiei eskerrak eman dizkiete, “Jakin badakigu oso zaila dela neurri honetako eskariari aurre egitea eta argazki-



tan agertzen den pintxoaren itxura eta zaporea mantentzea”.

Belaustegiko afariaren zozketa

Pintxoak dastatu ostean puntuzioak eman zituzten herritarren artean Belaustegi Jatetxean bi lagunentzako afaria zozketatu zen asteazkenean, sari bana-ketarekin batera, eta Asier Burgañari egokitu zaio afaria.



Kontzertu akustikoa antolatu du Herri Ekimenak Otegiren alde



Euskal Herriko hainbat musika talde eta bakarlari bildu ditu *Arnaldo Askatu Politika Askatu* plataformak Herriko Antzokian urriaren 27an izango den kontzertu akustikorako.

Musikari guzti horiek borondatez eta trukean ezer eskatu gabe prest agertu izana eskertu nahi izan du plataformak, eta horrekin batera, herritarrei ere, ahal duten neurrian lagundu dezaten eskatu die. Horretarako kontu korrante zenbaki bat jarri du herritarren eskura eta hamar euro edo gehiagoko laguntza emandakoek kontzertuko sarrera erdi prezioan eskuratu ahal izango dutela jakinarazi du. Hona hemen kontu korrantea: 3035 0007 29 0071119285.

Azkenik, plataformak ohartarazi nahi izan du kontzerturako sarrerak ez direla aurrez salduko eta hortaz, urriaren 27an Herriko Antzokian dauden lehenengo 400 pertsonak izango dutela bertara sartzeko aukera.

Lekua **Mintxetako spinning gela berria**



Mintxetako spinning gela berriaren obrak abuzturako amaitzea aurreikusten dute arduradunek, eta irailerako erabiltzeko prest egongo da. Patronatuko arduradunek jakinarazi dutenez, 50 bat bizikleta jarriko dituzte erabiltzaileentzako. Mintxetako harmailen eta padel pistaren artean egiten ari diren gela berriak kristalezko leiho handi bat izango du, eta gutxi gorabehera, 100 metro koadroko azalera. Beheko solairuan CD Elgoibarrentzako biltegirako gune bat egongo da. Proiektuak 152.000 euroko aurrekontua dauka.

Egungo spinning gelan, bestalde, walking kirola emango dute irailetik aurrera, hau da, oinez ibiltzea simulatuko duten makinak jarriko dituzte.

Irudia **San Fermin Txiki**

Beste urte batez zuri gorritz jantzi zuen Plaza Handia Atxutximaikak antolatutako San Fermin Txiki egunak. Goizean goizetik pregoia, zezenzikleten entzierroa, poniak, zezen mekanikoa eta puzgarriak topatu zituen, besteak beste, plazara gerturatu zirenek. Eguerdiko 12:30ak aldera gainera, txorizoa banatu zieten umeei Atxutximaikako hezitzaileek eta horrela agurtu zuten San Fermin, hurrengo urtera arte.



Inkestatzaile faltsuekin tentuz ibiltzeko abisua

Udaltzaingoa jakinarazi duenez lapurreta modu berri bat jarri dute martxan. Inkestatzaileak bailtzen galderak egiten hasi eta NAN txartela eskatzea da lapurren jokamoldea. Txartela ateratzeko momentua erabiltzen dute gero, dirua eta bestelakoak lapurtzeko. Hortaz, kaleko inkestatzaileekin arretaz jokatzeko gomendioa egin du Udaltzaingoa.

Bilduk Herri Bilkura deitu du datorren astearterako

Hauteskundeak izan zirenetik orain arte udal taldeak eman dituen pausuk azaltzeko eta hemendik aurrera eman beharrekoez aritzeko Herri Bilkura antolatu du Bildu koalizioak hilaren 12rako 19:00etan hasiko da Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Zentzu horretan, herritarrek bilerara agertu eta parte hartzera animatu dituzte. Era berean, Jon Peli Uriguen taldekidea zoriondu du koalizioak Foru Aldundian beteko duen kargu berriarengatik.

Debegesak 'Eraiki zure etorkizuna' prestakuntza plana jarriko du martxan

Langabezian dauden eta jardueira profesional bat abian jarri nahi duten 50 urtetik gorako pertsonak hartu ahalko dute parte Debegesak uztailean martxan jarriko duen doako prestakuntza plan honetan. Tel. 943 028 210

Jubilatuena Etxeak irteera antolatu du Iruñara

Egun osoko irteera antolatu du Jubilatuen Etxeak uztailaren 21erako. Goizeko 8:15ean Elgoibarko plazatik irten, Iruñan hamaiketakoaren ostean inguruak ezagutu, ondoren bazkaldu eta Donostiara arratsalde pasa joatea da plana. Berriz, 20:15ean egingo da Donostiatik Elgoibarrerako buelta. Guztira, 31 euro ordaindu beharko ditu Jubilatuen Etxeko bazkide denak, eta 36 bazkide ez denak.

3 LOGELAKO
ETXEBIZITZAK
230.000 €-tik
HASITA
ELGOIBAR



Lehen salmentetarako
AUKERA BEREZIAK



Ubitarte etxebizitzak

- 32 Etxebizitza eta garaje berri ingurune paregabeen
- Etxebizitza zure neurrira egokitzeko aukera
- Duplex atikoak solariumarekin
- Behe solairuak terraza handi eta txokoekin
- Jantzitako sukaldeak

Informa zaituz

943 81 24 62

**Bulego berria zabalik!
Zatoz eta bisita gaitzazu
San Bartolome kalea,
16 behea**

www.antzibar.com

ANTZIBAR
CONSTRUCCIONES-ERAIKUNTZAK

Miloi bat euroko saria laga du Bonolotoak Elgoibarren.

Zer egingo zenuke zuk miloi bat euro tokatuz gero?



Kristina Ansola
41 urte, hezitzailea

Zuloak estaliko nituzke lehenengo, gero kapritxo pare bat erosi, eta ondoren bai, bidaiatzera joango nintzateke. Bai, urte beteko eszedentzia eskatuko nuke, umeak hartu eta hor zehar joango nintzateke autokarabana hartuta, mundua ezagutzera.



Josua Lemos
19 urte, langabetua

Oporretara joango nintzateke Karibera, baina ez hilabeterako; bertirako. Lanean banengo ere laga egingo nioke lan egiteari. Gerora, akaso, berriz hasi beharko nuke, baina momentuan behintzat, dena lagako nuke denboraldi luze baterako.



Iker Fernandez
14 urte, ikaslea

Bidaia bat egingo nuke, eta familiakoentzako etxe berria erosi. Baina sekula ez dut pentsatu horretan, ondo nago nagoen moduan, eta, gainera uste dut buruhauste handia izango litzatekeela loteria tokatu ostean, diru guzti horrekin zer egin erabakitzea.



Mari Tere Arriola
76 urte, etxeakoandrea

Seme-alabei lagunduko nieke lehenengo. Seme-alaben artean banatuko nuke euren gauzak konpontzeko beharrezkoa duten dirua, eta gainerakoa hartuko nuke niretzat. Baina benera, beharra dutenez ere akordatu nintzateke. Ez zaidanez tokatuko, lasai nago.

■ SEMAFOROA




Meliton zubia oso egoera txarrean dago: "Meliton zubiko zorua oso egoera txarrean dago. Asfaltoa zuloz beteta dago, eta horietako zulo bat, gainera, oso handia da. Dagokionari ingurune hori txukuntzeko eskatu nahi diogu".

Madalako iturriak ura galtzen du: "Denboratxo bat bada Madalako parkeko iturriak ura galtzen duenetik. Hasieran ur gutxi ateratzen zen eta orain, bistan denez, gero eta gehiago galtzen du. Ume txikiak dauzkagunok lan handia izaten dugu haurrak handik apartatzen. Horrez gain, ur mordoa alferrik galtzen ari da. Gauza bera gertatzen ari da Bernardo Ezenarro kaleko ureztatze-ahoa. Gero Elgoibar berdea eta iraunkortasuna aipatuko dute. Hain zailak dira horiek konpontzen?"



Sanloko zuzendaritzak eskerrak eman zizkien joan zen asteko alean denboraldi amaierako jai antolatzen lagundu zutenei, eta oraingoan, Elgoibarko Udala, Udal kirol patronatua eta Elgoibar Ikastola eskertu nahi ditu.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112



**“Lan polit
bat egiteko
gaitasuna
duen jendea
gara”**

JON PELI URIGUEN

**GIPUZKOAKO BERRIKUNTZARAKO, LANDA GARAPENERAKO ETA
TURISMORAKO DIPUTATUA**

Orain lau urte eman zituen bere lehen pausoak politikagintzan. Elgoibarko Eusko Alkartasunaren zerrendaburua izan zen 2007ko udal hauteskundeetan eta azken lau urteetan Euskara Batzordeko buru modura aritu da bere zinegotzi lanetan. Pasa berri diren hauteskundeetan Bildu koalizioaren zerrendan bigarrena izan da. Herrian ez ezik baina, Gipuzkoan ere zabaldu beharko du bere jardun politikoa, eratu berri den Gipuzkoako Foru Gobernuan Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko diputatu izendatu baitu Martin Garitano Ahalduen Nagusiak. Oraingoz zinegotzi arduran ere jarraitzeko asmoa azaldu du baina denborak erakutsiko omen dio kargu berriak zer eskatzen dion. Lanerako ilusioz heldu dio karguari; pertsonalki eta politikoki, erronka bat baita begien parean duena.

Diputatu izendatu zaitu Martin Garitano Ahaldu Nagusiak. Nola hartu duzu kargu berria? Espero zenuen?

Ez, ez nuen espero. Azken finean, Udaleko hautagai izateko aurkeztu nintzenezan nire asmoa herrian lan egitea zen, baina ez nuen sekula pentsatuko herritik kanpo politika gintzan sartuko nintzatekeenik. Baina beno, poliki-poliki Eusko Alkartasunatik herritik haratagoko beste erronka batzuk ere proposatu zizkidaten, eta uste dut, horiek herrian ere lagungarri izan daitezkeela. Kasu honetan ere, karguaren eskaintza jaso nuenean, erronka modura ulertu nuen. Eta horrelako erronka bati, ezin nion ezetzik eman.

Zer suposatuko du lan honek zuretzat? Udaletxeko zinegotzi karguarengan izango ote du eraginik?

Oraindik ere neurtzeko dago hori dena, baina nire hasierako asmoa behintzat bada ahaldun eta zinegotzi karguak, biak betetzea, ez dagoelako inongo ezintasunik biak betetzeko. Argi dagoena da baina, ahaldun kargua ardura eta lan karga handikoa dela, eta beraz, denborak erakutsiko dit bi lanak ondo egiteko moduan nagoen ala ez.

“Diputazioan hartutako erabakiek ere eragin zuzena dute herritarrongan.”

Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko diputatua zara. Zein da zure lehen asmoa?

Benoa, nire lehen eginkizuna talde bat sortzea izango da eta horrekin, egoera nola dagoen aztertzea. Egoera orokorrari erreparatuta, badakigu krisi egoera batean gaudela, eta zentzu horretan, aztertu behar da zein baliabide ditugun, eta adibidez, uztaila izanik jada zeintzuk dauden erabiltzeko moduan eta zeintzuk agortuta. Orduan beraz, lehenengo lana egoera nola dagoen aztertzea izango da.

Landa guneek bizi duten krisi egoerari begira, Turismoa eta Landa Garapena elkarrekin kokatu izanak lagunduko dio landa inguruarri?

Bai, uste dut hori dela erronka; sinergiak bilatzea bata eta bestearen artean. Gaur egun nekazaritzak bizi duen egoera kaxkarra ikusita, denok dakigu lehiakor izateko gizarte honetan laguntzak behar dituztela kompetentzia handia dagoelako eta nekazaritzatik bizitzea ez delako erraza. Hori dela eta, beste baliabide batzuk bilatu beharra daukagu, eta turismoa izan daiteke landa garapenean lagundu dezakeen baliabide bat.

Energia berriztagarriak izan daitezke Berrikuntza eta Landa Garapena uztartu eta zuk esan bezala, sinergiak bilatzeko modu bat?

Energia berriztagarrien kasuan, argi dagoena da kontsumoa gutxitzea izan beharko litzatekeela gure helburuetako bat, baina ikusten ari gara kontsumoa gutxitzea ez dela horren erraza eta beraz beste alde batetik ere heldu behar diogula horri. Bada erronka bat berrikuntza horiei ere errentagarritasuna edo onurak bilatzea eta gainera energia berriztagarrien gaia bereziki interesgarria izan daiteke, energia-kontsumoa kostuen atal garrantzitsu bat da eta.

Turismoari erreparatuta ere, Donostia 2016 pare-parean tokatu zaizu.

Bai, eta gainera kontuan izan behar dugu hasi berri dugun legegintzaldia 2011n hasi eta 2015ean bukatuko dela, beraz, 2016rako prestaketa lanek bete-betean harrapatuko gaituzte. Erronka modura ulertu behar dugu, eta ez bakarrik Donostia-rentzat, Gipuzkoa osoarentzat baizik. Horrek Donostiara ez ezik, Gipuzkoa guztira erakarriko baitu turismoa eta hori, beste turismo mota batzuk aztertze eta bultzatzeko aprobetxatu behar dugu.

Hauteskunde kanpainan Bilduk sarritan aipatu izan du herritarren parte hartzearen ideia. Parte hartze horrek Foru Aldundian ere badu lekurik?

Azken finean herritarrak herrian mugitzen dira gehien, baina parte hartzea ezin dugu herriko ekimenetara mugatu. Gehien eragiten diguten erabakiak edo gertuen tokatzen zaizkigunak herrikoak dira eta Udala da azken batean, herritarrengandik gertuen dagoen erakundea. Baina Diputazioan edo beste erakundeetan hartutako erabakiek ere eragin zuzena dutenez, ezinbestekoa

da parte hartzea eremu guztietara zabaltea; bai lurralde mailara, eta baita nazio mailara ere.

Zazpi ahaldunetako bat zara zu Jon Peli, nola ikusten duzu taldea, oro har?

Gehienak oraindik ezagutu berri ditut, baina benetan oso inpresio ona sortu dit taldeak. Martin Garitanok aurkezpenean esan zuen moduan, Gipuzkoan orain arte inoiz egon ez den gobernu guztiz euskalduna eta soberanista osatu dugu, eta gainera, ez dut uste soilik perfil politikodun edo konfiantzazko jendea begiratu zaionik. Esan nahi dut, orain arte esparru hauetan lanean jardundakook osatzen dugu lan-taldea eta uste dut lan polit bat egiteko gaitasuna duen jendea garela.

“Lehenengo lana egoera nola dagoen aztertzea izango da”

Bilduk hauteskundeetan izandako emaitzen ostean, izan da koalizioaren gobernatzeko gaitasuna dudan jarri duenik. Gipuzkoara begira egongo dira horiek datozen lau urteetan.

Urduritasunaren sintoma baino ez dira berba horiek. Uste dut jende askoren esperantzaz piztu izana dela Bilduren arrakasta nagusietako bat. Benetako konfiantza jarri dute gudan, ikusi dutelako ezberdin pentsatu arren, helburu komunak ditugunok lan egiteko bildu garela. Eta batzuk horren beldur dira. Nik ordea beldurrik ez daukat badakidalako gaitasuna badagoela eta aurrera ateratzeko gai izango garela. Ez gatzoz gauzak guztiz goitik behera aldatzera. Aurretik egin dituzten gauza onak aprobetxatuko ditugu; ez daukagu zertan hankaz gora jarri guztia, baina gaizki egin direnak, guk beste modu batera ulertzen baditugu, beste modu batera egingo ditugu. Baina gaitasunik badagoen... horrek bai ez didala, ez beldurrik, ez zalantzarik sortzen.

Erretratu zaharra



1941

San Bartolome jaietan ateratako argazkia ekarri digu aste honetan elgoibartar batek. Jaiak zirela eta, argazkilari ibiltari batzuk etorzen omen ziren herrira, atretzo eta guzti, nahi zuenari argazkiak ateratzeko asmotan. Erretratuan ageri direnak ondorengoak dira: **Atzean:** Maria Luisa Iriondo (†), Julita Gorrotxategi, Josefa Zulaika, Valentin Aizpitarte (besoetan), Antonio Iriondo (†), Sabina Arrieta, Maria Astigarraga (†) eta Maritxu Garate. **Erdian:** Ezezaguna eta Anjel Iriondo. **Behean:** Fermin Ruiz de Gauna (†) eta Jose Iriondo (†).



ESKERTZA

MARIA ARAKISTAIN IRIONDO

2011ko uztailaren 4an hil zen. Haren oroimenez meza izango da, domekan, uztailak 10, goizeko 11:00etan Mendaroko Garagarzako eliz parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



ESKERTZA

AMAIA URKIDI IRIONDO

2011ko uztailaren 4an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



LUIS ANGEL PEREZ

Txirrindularia

Luis Angel Perezek orain dela 30 urte egindako bidaia errepikatu du: Palentziatik Elgoibarrera etorri da bizikletaz. Goizean goiz irten zen handik, eta bederatzi orduen ostean iritsi zen Elgoibarrera, 279 kilometro eginda. Orain dela 30 urte bere neska-laguna bisitatzea etorri zen, eta aurten, esperientzia hura gogoratu nahi izan du.

“Bizkarreko lesio bat gainditzeko erronka izan da Palentziatik Elgoibarrera bizikletaz etortzea”



Palentziatik Elgoibarrera etorri zara bizikletaz. Zer dela-eta?

Orain dela 30 urte egindako abentura errepikatu nahi nuen. Bizkarreko lesio baten ondorioz denbora luzez egon naiz bizikletan ibili gabe, eta lesio hori gainditzeko erronka izan da Palentziatik Elgoibarrera bizikletaz etortzea. Bizitzan erronkekin funtzionatzen dugu, eta kirolariok, are gehiago. Erronkei esker gainditzen ditugu mugak, eta motibatu egiten gara. Iaz hasi nintzen berriro bizikletan ibiltzen. Klub batean sartu nintzen, eta Elgoibarrerako ibilbidea berriz egitea bururatu zitzaidan. Orain dela 30 urte bezalaxe, San Juan inguruan, abentura hura errepikatuko nuela erabaki nuen, eta halaxe egin dut. 6:00etan irten nintzen Astudillotik (Palentzia), goizeko freskura aprobetxatzeko. Bederatzi ordu pasa egin nituen, eta 15:15ak aldera iritsi nintzen Elgoibarrera. Ez nintzen geratu ere egin! Hiru madalena eta ura bakarrik hartu nituen, eta horrekin egin nuen bidaia guztia.

Orain dela 30 urte egin zenuen estreinakoz bidaia berbera. Nolako izan zen abentura hura?

Astudillo herrikoa naiz ni, eta han ezagutu nuen Marga, egun nire emaztea dena. Han pasatzen zuen uda familiakoekin, eta uda amaitzean Elgoibarrera itzultzen zen. Niri bizikletan ibiltzea gustatzen zitzaidan, eta sorpresa ematea pentsatu nuen. Bizikleta hartu, eta Elgoibarreraino joan nintzen.

Zein desberdintasun aurkitu dituzu lehenengo bidaiaren eta egungoaren artean?

Orain dela 30 urte zazpi ordu eta erdian egin nuen bidaia bera! Gazteagoa nintzen eta sasoi hobean nengoen, itxura denez. Garai hartako

errepide asko autobide dira orain, eta ezin izan ditut erabili. Horrek gauzak konplikatu dizkit, apur bat.

Nolako da gidarien eta txirrindularien arteko harremana?

Euskal Herrian gehiago errespetatzen dira txirrindulariak. Burgos edo Gasteiz pasatzea oso desberdina da. Ni ohituta nago, baina autoak oso arriskutsuak dira. Kamioi bat oso gertu pasatu zitzaidan, baina bestela ez dut arazorik izan.

Anekdotak edo ezustekorik izan duzu?

Herritik irten nintzenean azeri bat izan nuen inguruan, eta apur bat aurrerago orkatz bat irten zitzaidan bide erdira. Susto handia eman zidan! Horrez gain, Mirandatik irtean bigarren mailako errepide bat hartu behar nuen, eta hango herritar bati galdetu nion nondik joan behar nuen, eta okerreko bidea adierazi zidan. Abandonatutako herri batera iritsi nintzen, eta txakur batzuk agertu zitzaizkidan. Ahal nuen azkarren egin nuen ihes handik! Autobidean sartu nintzen, eta ez dakit hori legezkoa den. Galdetu egin beharko dut. Bestela, haizea izan nuen hasieran, eta Bergara inguruan galerna apur bat ere igarri nuen. Baina bestela ez dut inolako arazorik izan.

Entrenamendu berezirik egin duzu bidaia honen aurretik?

Bai, gogor entrenatu naiz. 4.500 kilometro egin ditut, fondoa hartzeko bereziki, eta txirrindu probaren bat ere egin izan dut. Emazteak zorabuta nagoela esan zidan, ez daukadala orduko indarra eta ea zer uste dudana, baina nik banekien denbora gehiago kostatu arren, egingo nuela. Oso pozik geratu naiz.

Debarrena areto futbol klubak harrobiaren aldeko apustua egin du datorren denboraldirako

Bigarren B mailako talde gipuzkoar bakarra izango da

Martitzenean aurkeztu zuen Debarrena areto futbol klubak XXI. menderako proiektua, eta zuzendaritzako kideek esandakoaren arabera, harrobiaren aldeko apustua egingo dute. Hamahiru jokalariz izango ditu taldeak, eta bat izan ezik, gainerakoak gipuzkoarrak izango dira. Eskualdeko eta Gipuzkoako talde erreferentea izatea da euren helburua, eta horretarako, zuzendaritza berria eta entrenatzaile talde profesionala prestatu dituzte. Debarrenako arduradunek gaztetxoak erakarri nahi dituzte areto futboleko jokatzera. Bigarren B mailan jokatuko du lehen taldeak, eta Gipuzkoako talde bakarra izango da maila horretan.

Etorkizunari begira, areto futbola sendotzeko, Elgoibarko kiroldegi berria



oinarrizko elementua izango dela aipatu zuten Debarrenako kideek. Izan ere, Elgoibar izango da klubaren gune nagusia, eta Udalarekin elkarlanerako bideak prestatu dituzte.

Debarrena Aretoko Futbol Kluba orain dela 23 urte sortu zuten. 02-03 denboraldian Nazional A mailan jokatuko zuten, eta aurreko berriz lortu dute igotzea.

Maite Maiora bederatzigarren, Espainiako Mendi Lasterketa txapelketan



Joan zen domekan Espainiako Mendi Lasterketa txapelketa jokatu zen Lleida-ko Vilaller herrian, eta Maite Maiora mendarorak bederatzigarren lekuan amaitu zuen proba, emakumezkoen kategorian.

Baldintza meteorologiko txarrak zirela-eta, ibilbidea murriztu egin zuten antolatzaileek, eta maratoni osoa egin beharrean, erdia egin zuten korrikalariak. Maite Maiorak Euskadiko Selekzioarekin hartu zuen parte, eta 2:18:05ko denbora behar izan zuen proba amaitzeko. Korrikalari mendarorra bosgarren postutik minutu pasatxora geratu zen.

Ainhoa Lendinez, laugarren Debako triatloian

Elgoibarko eta Mendaroko kirolariak Debako triatloian hartu zuten parte joan zen zapatuan, eta Ainhoa Lendinezek laugarren egin zuen nesketan. Partaideek 1,5 kilometro egin zituzten igerian, 38 kilometro bizikletan, eta 10,5 kilometro korrika. Partaideen arabera, proba polita baina gogorra izan zen. Elgoibartik sei lagunek hartu zuten parte. Ainhoa Lendinez (2:38:46), Ibon Gabilondo (2:16:59), Javi Fernandez (2:29:02), Gaizka Azkarate (2:36:34) eta Ibon Serrano (2:39:29). Mendarorren artean, 13. postuan amaitu zuen proba Iñigo Lazkanok (2:14:28).



Quad txapelketa izan zen asteburuan Idotorben eta Rallysprinta Aistian

Motokros proba ere jokatu zuten gazteenek Idotorben

Motor hotsa izan zen nagusi pasa den asteburuan Elgoibar aldeko auzoetan. Quad txapelketa jokatu zen estreinakoz Idotorben eta horrekin batera, orain bi urte desagertutako Motokros proba ere berreskuratu dute. Aiaztian aldiz, Rallysprintaren bederatzigarren edizioa jokatu zen.

Aranda de Dueroko (Burgos) Enrique Pardo, egungo Espainiako txapelduna izan zen zapatuan ere Quad txapelketa irabazlea. Bigarrena berriz, Joseba Ramos Goikoetxea plaentxiarra izan zen. Rallysprintean Angela Vilariño eta Alazne Apaltza kokatu ziren lehenengo postuan.

Elgoibartarrak dotore

Asteburuko probetan Aitor Urain eta Aitor Arrieta izan ziren hurrenez hurren motokroseko proban eta Rallysprintean parte hartu zuten elgoibartarrak. Biek ere lan txukuna egin zuten; Urainek laugarren postua lortu zuen motokros proban eta Arrietak hamakargarrena Aistiako Rallysprintean.



Ikastolako 6. mailako neskek Gipuzkoako txapeldunak eskubaloian



Herrian lehenengo postua lortu ostean, Gipuzkoako txapela lortu dute Ikastolako 6. mailako neskek. Finalerdietan Urnietaren aurkako partida irabazi ostean Usurbilen aurka jokatu zuten Gipuzkoako finala eta partida gogorraren ostean irabazi zuten txapela. Argazkian, goian: Ainhitze Beristain, Iera Hernandez, Nerea Bastida, Ana Zubiaurre, Uxue, Alberto Hernandez. Behean: Amaia Iriondo, Nekane Agirregomezkorta, Julene Rodriguez, Ane Almenara eta Kristina Vargas.

“Txaparrotan” hondartzako eskubaloi txapelketan finalurrekoetara iritsi dira Sanloko senior neskek

Pasa den asteburuan Zarautzen jokatu zen hondartzako eskubaloi txapelketan, finalean sartzekotan geratu ziren Elgoibartarrak, finalurrekoetan Zarauzko senior nesken taldearen aurka galduta.

Ehun Milak ultratrail probari ongi-etorria egingo diote Azkarate gainean

Uztailaren 15ean pasatuko da Azkarate gainetik Ehun Milak ultratrail proba. Morkaiko Mendizale Elkarteak Trikiti festa antolatu du iluntzeko 21:00etatik aurrera mendizaleak animatzera igoko direnentzat. Gainera, gerturatutakoaren artean hamar motxila zozketatuko dituztela ere jakinarazi du Mendizale Elkarteak.

Spinning maratonia eta dantza latinoen erakustaldia Mintxetan

Udal Kirol Patronatuak Spinning maratonia antolatu du gaur arratsalderako, Mintxetako igerilekuan. Bi saio egingo dituzte: 19:00etan lehenengoa, eta 20:30ean bigarrena. Era berean, dantza latinoen erakustaldia ere antolatu dute datorren asterako. Uztailaren 14an izango da igerilekuan, 19:00etan hasi eta 20:30ak bitarte. Ez dago izena eman beharrik eta edozeinek hartu dezake parte.

Denetik izan da Idotorbe-San Pedroko jaietan

Ekainaren 28an hasi, eta joan zen domekara bitartean, denetik izan da San Pedroko jaietan. Adin eta mota guztietako jendearentzako ekintzak antolatu dituzte, eta Idotorbera gerturatu direnek izan dute festaz gozatzeko aukera. Horrez gain, jokoan eta apustuan jarduteko aukerarik ere izan da. Bolo txapelketa Edu Arronak irabazi zuen, eta idi probetan Laudioko Oirigolzargiren idi pareak izan zen onena, 46 plazarekin. Azkenik, moto bat zozketatu zuten antolatzaileek, eta ondorengoak izan dira zenbaki sarituak: Saritutako zenbakia, 5.695; erreserbako lehen zenbakia, 1.859 eta erreserbako bigarren zenbakia, 3.069.



Auzotar asko batu ziren domeka goizean eztei dantza ikusteko.



Auzoko neskek dotore, dantza saioa egiteko prest.



TTakun bikoteak txalaparta erakustaldia eskaini zuen.



Julian eta Jose Loiolak irabazi zuten mus txapelketa. Jesus Mari Azpiazu eta Sabino Etxeberria izan ziren bigarrenak.

Gaur inauguratuko du Haritz dantza taldeak Folklore Jaialdiari buruzko erakusketa

Gaur hasi eta uztailaren 22ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxean

Gaur, iluntzeko 19:00etan inauguratuko da Haritz Dantza Taldeak Nazioarteko Folklore Jaialdiaren 25. urteurrena dela eta antolatu duen erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo da ikusgai eta leku horretan bertan emango zaio irekiera gaur iluntzean.

Azken 25 urteetako zenbait kartel, kanpotik dantzara etorritako taldeek emandako oroigarriak, Euskal Herriko toki desberdinetako erropak eta argazkiak dira, besteak beste, erakusketan ikusgai izango direnak. Gaur hasi eta hilaren 22a bitarte egongo da zabalik erakusketa, domeketan izan ezik.

Uztailaren 22an ekitaldi berezia

Erakusketa ez da baina, Haritz Dantza Taldeak Folklore Jaialdiaren 25 urteak



Arg.: Azkue

ospatzeko prestatutako berezitasun bakarra. Uztailaren 22an orain artean jaialdiaren parte hartu duten dantzari, musikari eta laguntzaile guztiak batu nahi baitituzte. Egun horretarako orduan,

18:00etatik aurrera prestatutakoetan parte hartzeko asmoa daukanari www.dantzan.com/blogak/haritz/jaialdi-25 blogean izena emateko eskatu die Dantza Taldeak.

2012ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du Udalak Ongarriren laguntzarekin



Elgoibarko udalak 2012. urtean ere egutegia kaleratzeko asmoa adierazi du eta horretarako, Ongarri argazki elkartearen laguntzarekin herriko hirugarren argazki lehiaketa antolatu du. Urriaren 17a, astelehena, izango da lanak aurkezteko azken eguna eta parte hartzeko baldintza bakarra argazkiak Elgoibarkoak izan behar dutela da. Hau da, argazkiak zuzenean erreferentzia egin beharko dio Elgoibarko herriari. Udaleko Euskara Batzordeak jakitera eman duenez, aurkeztutako lan guztien artean hamabi aukeratuko dira egutegirako eta hautatutako argazki bakoitzeko, 65 euroko saria emango du Udalak. Adin tarte eta bestelako betekizunik ez dagoenez eta herritar guztiek parte hartu dezaketenez, Udalak herritarrak parte hartzerantz animatu ditu.

Globoflexia tailerra egongo da Altzolan

Zubibai Altzolako auzotarren elkarteak Globoflexia tailerra antolatu igande honetarako.

Altzolako frontoian izango da tailerra, eguerdiko 12:00etan hasita.

Globoekin irudi eta forma desberdinak egiten trebatzea da tailerren helburua eta herritarrak parte hartzerantz animatu ditu Zubibai elkarteak.

Entzierroak pantaila handian Kultur Etxean

Kultura Sailak antolatuta, San Ferminetako entzierroak pantaila handian ikusteko aukera dago Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Entzierroak dauden bakoitzean, goizeko 08:00etan prest egoten da guztia elkarrekin entzierroa ikusi ahal izateko. Esan bezala, atzo hasita, datorren osteguna arte izango da aukera hau.

LANA

ESKAERA

- Neska lanerako prest, garbiketa lanak egin eta umeak nahiz pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ **648 603 029**
- Gizonezkoa lan egiteko prest. Esperientzia handia eraikuntza lanetan eta lorezain bezala. Pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ **628 874 887**
- Emakumezkoa pertsona nagusiak zaintzeko edo sukalde laguntzaile moduan lan egiteko prest. ☎ **689 273 664**
- Emakumea garbiketarako prest. ☎ **943 742 201**
- Neska goizez, orduka, lan egiteko prest. ☎ **697 735 046**
- Mutila lanerako prest. Biltegi lanetan, banatzaile lanetan, txofer... ☎ **622 634 238 (Manuel)**
- Klase partikularrak ematen dira: Batxilergoko matematika, LH, DBH eta kontabilitatea. ☎ **666 042 710**
- Neska abuztuan lan egiteko prest. Garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ **618 163 061**
- Uztaileko eta abuztuko asteburuetan lan egiteko prest. Nagusiak zein umeak zainduko nituzke. ☎ **649 663 091**
- LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditut. ☎ **669 322 250**
- Lehen Hezkuntzako klase partikularrak emateko eta umeak zaintzeko prest. Uztailean. ☎ **659 024 427**
- Emakumeak pertsona nagusiak zainduz lan egingo luke. Interna edo orduka. ☎ **699 813 826**
- Neska lanerako prest. ☎ **681 222 807**
- Mutila lan bila, pintore edo zerbitzari lanak egiteko. ☎ **656 781 743**
- Emakumea lan bila dabil. Pertsona nagusiak zaintzen esperientzia handia daukat. ☎ **633 150 376**

- Mutila lanerako prest. Nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua. ☎ **681 154 706**
- Neska lanerako prest. Nagusiak zainduko lituzke, orduka edo interna. ☎ **688 682 398**
- Neska gaztea lanerako prest, pertsona helduak eta umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak egingo nituzke orduka edo interna. ☎ **646 821 678**

ESKAITZA

- Sukaldari euskalduna behar da ogitartekoak eta plater konbinatuaj prestatzeko. Mendaroko taberna batean lan egiteko izango litzateke. ☎ **666 559 513**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Bi logela alokagai Elgoibarren. Pisu partekatua. ☎ **679 843 332**
- Aukera ezin hobea! Oso merkea! Pisia salgai Sigman. Premiazkoa, pertsona nagusiak residentziara jolan beharra duelako. Berogailu sistema eta berrikuntza askorekin. ☎ **699 953 021**
- 3 logelako etxea alokairuan Gasteizen, Unibertsitate bost minututa. ☎ **628 232 931**
- Etxea salgai herri erdian. Prezio onean. Fatxada, teilatua eta igogailu berriak. Dena kanpoaldera (91m²). Aukeran garaje itxia Plaza Txikian. ☎ **609 141 312**
- Bi gelako apartamentua salgai kiroldegi ondoko etxe berrietan. Erosoa, argitsua, oso polita. Garajea aukeratu. ☎ **675 007 661**
- Gizonezkoak pisua alokatuko luke Elgoibarren. ☎ **620 664 454**
- Etxe berria salgai Urruzunon. Hiru logela, bi komun, egongela-jangela, terraza eta sukaldea altzariekin. ☎ **676 404 365 / 669 621 164**
- Pisua alokatuko nuke. ☎ **689 563 351**

- Etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ **697 735 046**

- Apartamentua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Erioxa), abuztuan. Prezio onean.

☎ **941 341 437 / 676 882 373 (Esther)**

GARAJEAK ETA LOKALAK

- Garaje itxia salgai Plaza Txiki inguruan. ☎ **628 521 579**
- Autokarabantzat garaje itxiak alokatzen dira Mendaron. Kurutzgain industrigunean. Komuna eta argi indarra dute. ☎ **630 941 241**
- Gazteentzako lokala alokagai, araudi berria betetzen du. 125 m² ditu gutxi gorabehera. ☎ **649 446 716 (Loli)**

BESTELAKOAK

- Graduatutako betaurreko urdinak aurkitu dira Bioin inguruan. ☎ **646 279 610**

ZOZKETA

- Ikastolaren eguneko zozketako hirugarren sariduna ez da agertu oraindik. Zenabakia: 0554 (erreserbakoa, 1481).

KINTOAK

- 1957an jaiotako Kinto Bazkaria Mendaron. Landa Jatetxean izango da hilaren 16an 14:00etan. Mendaroko bi arraindegietan eman daiteke izena. ☎ **635 208 128 (Mendikuterren arraindegia)**
- ☎ **943 033 622 (Albertoren arraindegia)**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Prezioak: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta) Autoak saltzea: 12 euro. Bestelakoak: 6 euro
Iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.



elgoibar ikastola

ELGOIBAR IKASTOLAK ONDORENGO LANPOSTUAK BETETZEKO HAUTAGAIK BEHAR DITU:

- **HH Iziklorako hezitzailea: Gizarte Integrazioako Goi teknikaria edo Haur Hezkuntzako Goi Teknikaria. (Ref: Tek)**
- **LHko ingles irakaslea. (Ref: LH)**
- **Bigarren Hezkuntzan inglesa eta frantsesa emateko irakaslea. (Ref: DBH)**

Interesatuok bidali C.V.a elgoibar@ikastola.net helbidera, mezuzaren gaisan argi adieraziz lanpostuaren erreferentzia.



• Zorionak, **Gorka**, gaur 7 urte egin dituzulako. Oso ondo pasa eguna! Muxu asko etxekoan, eta, bereziki, Anderren partez.



• Zorionak, **Saioa**, atzo urte bat egin zenuelako. Gurasoen, eta anaiaren partez. Muxu bat.




• Zorionak, **Mikel**, atzo urtebete egin zenuelako. Familiakoan, eta bereziki, anaien partez.




• Zorionik beroenak, **Jurdana**, astelehenean 9 urte egingo dituzulako. Egund polita izan dezazula. Muxu handi bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **Sugar**, zurre zazpigarren urtebetetean. Ondo ospatu! Muxu handi bat, bereziki, Arhane, Goiatz eta Intzaren partez.




• Zorionak, **Joanes**, gaur urte bat egin dituzulako! Patxo handi bat familiakoan eta bereziki, Maddi eta Aneren partez.



• Zorionak, **Iñigo**, 10ean urteak beteko dituzulako. Bereziki, Markel, Oinatz, Oxel, Aratz, Aimar eta Goiuriren partez.



• Zorionak, **Aratz**, familiakoan, eta bereziki, Markel, Oinatz, Oxel, Aimar eta Goiuriren partez.



• Zorionak, **Eneko**, gaur 5 urte bete dituzulako! Etxeko guztion partez.



• Hainbeste denbora elkarrekin, eta azkenean iritsi da eguna! Zorionak, **bikotel!** Koadrilakoan eta familiakoan partez.



• Zorionak, **Iruñe, Elene eta Garazi!** Mendaroko laguntxoan partez.



• Zorionak, **Oier**, gaur urte bat egin duzulako. Muxuak aitatxo, amaxo eta Iratiren partez.



• Bederatzi muxu bakoitzari! Zorionak, eta beti irribarre egin bizitzari.

Erretratu bakarreko agurra: 3 €. Argazki bikoitza: 5 €. Hirukoitza: 7 €. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARRENEKO bulegora 12:00ak baino lehen, edobarren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

8 barixakua

Batzarra

19:30 Sanloren batzar nagusia
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

10 domeka

Tailerra

12:00 Globoflexia
Zubibai elkarteak antolatuta,
Altzolan.

12 martitzena

Herri bilkura

19:00 Bilduren Herri Bilkura
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

15 barixakua

Kirola

22:00 Ultratail lasterketari ongi-
etoria
Azkarate gainean. Elgoibarko
Ehunmilak taldeak antolatuta.

9 zapatua

Kirola

16:00 Txirindulari irteera
Javier Ezenaroren omenezko
lasterketa, Mendaron.

OKINDEGIA	10 domeka FOTERO
FARMAZIAK (24 orduz)	Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142
8 Ibañez	
9 Yudeo	
10 Yudego	
11 Zabaleta	Ibañez - Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638
12 Etxeberría (Errosario)	
13 Ibañez	
14 Garitaonandia-Bidasolo	Zabaleta - Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384
15 Etxeberría (Santa Ana)	



Uztailak 14,
Debara irteera
Uztailak 21, **Oriora irteera**
Azken plazak!
Informazio gehiago,
Ludotekan



Udalekuetara goaz!
uztailaren 11tik 17ra
Gorlizen egongo gara!
Uztailaren 20an
irekiko dugu
berriro zerbitzua.

ZINEA

PLAZA HANDIAN

«The Tourist»
8, barixakua: 22:30

«Enredados»
9, zapatua: 22:30

«**The tourist**» Zuzendaria: Florian Henckel von Donnersmarck. EEBB, 2010. Iraupena: 103 minutu. Generoa: Drama. Aktoreak: Angelina Jolie, Johnny Depp, Paul Bettany, Timothy Dalton. Frank Tupelo Europara doan turista amerikarra da. Tren bidaia batean emakume bat ezagutuko du, eta horren ondorioz, emozioz beteriko harreman arriskutsu batean murgilduko da. Paris eta Venezia izango dira filmaren eszenatokiak.

«**Enredados**» Zuzendaria: Byron Howard eta Nathan Greno. EEBB, 2010. Iraupena, 101 minutu. Generoa: Komedia, marrazki bizidunak. Musika komedia da. 21 metroko ilea duen neska da filmeko protagonista; Rapunzel. Umea zela bahitu zuten, eta dorre batean egon da preso nerabegarora arte. Orain, ihes egitea erabaki du, eta horretarako Flynn gaizkilearen laguntza izango du.



Badatoz
San Bartolomeak !!!
Publizitatea jartseko:
943 743 704





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilloia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.flodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Elbar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Elbar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Informazioa: www.arnaldotegi.com

Izan zaitez laguntzaile!

kontzertu akustikoa

Urriak 27
Osteguna 19:30

- Gose
- Kerobia
- KenZazpi
- Zea Mays
- Napoka Iria
- Mike! Urdangarin
- Asier Serrano
- Rafa Rueda
- Ion Gurrutxaga
- Oreka TX
- Esne Beltza



Elgoibar
HERRIKO ANTZOKIAN



ARNALDO ASKATU POLITIKA ASKATU
HERRI EKIMENA

Izan zaitez laguntzaile!

Sartu zaitez hemen:

www.arnaldotegi.com